KIROLARIENTZAKO
EUSKADIKO
HAUTAPROBAK:

INFANTILAK - KADETEAK - JUBENILAK (18 urte azpikoak)



Euskadiko Erkidegoa ordezkatzeko
HAUTAKETA IRIZPIDEAK,

Kaixo guztioi.

Urte honetan, 2025ean, Espainiako Selekzio Autonomikoen Txapelketarako (CESA) sailkatzeko prozesurako deialdia egingo diegu Infantil, Kadete eta Jubenil (18 urtetik beherakoak) mailako gure kirolari orientatzaile gazteei.

Oraingo honetan, 2025eko CESA, Coruñako probintzian ospatuko da ekainaren 20tik 22ra bitartean. Urtero bezala, kategoria bakoitzeko 4 neskek eta 4 mutilek izango dute Euskadiko selekzioa txapelketa hauetan ordezkatzeko aukera.

Buletin honen bidez, orientatzeko eskola-adinean dauden Euskadiko hautagaiak hautatzeko prozesua jartzen dugu abian.

Euskadiko orientazio selekzioaren araudia

1. PARTE-HARTZAILEAK: Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako kirolari guztiek parte hartu ahal izango dute, dagozkien adinetan. 2025rako FEDOren lizentzia edukitzea gomendatzen da.

2. PARTE HARTZEN DUTEN KIROLARIAK (adin-kategoriak): parte-hartzea zabalik egongo da, oro har, hurrengo urteetan jaiotako kirolarientzat:
   - 2007-2008: JUBENIL kategoria (18 urtetik beherakoak).
   - 2009-2010: KADETE kategoria.
   - 2011-2012: INFANTIL kategoria. (2013 2. urteko ALEBIN kategoria)

3. Interesdunek hautagaien inprimakia bete behar dute, interesa dutela jakiteko eta jarraipena eta kontaktua egin ahal izateko. (beherago)

4. Gurasoekiko komunikazioa: entrenatzaile eta gurasoen Whatsapp talde bat sortuko da, hautagaiek hautaketa-prozesuan izena ematean emandako telefono-zenbakiak erabiliz. Ondoren, hautatutako hautagaien talde bat sortuko da.

5. HAUTAKETARAKO PROBA PUNTUAGARRIAK honako 10 hauek izango dira:

   - Otsailak 9: Usurbil, GOL (herrikoa)
   - Martxoak 9: Nanclares, COA (mistoa)
   - Martxoak 16: Urkabe, GOL (basoa)
   - Martxoak 23: La Arboleda, COBI (basoa)
   - Apirilak 5: Gazume, GOL (basoa)
   - Maiatzak 11: Lemoa, COBI (mistoa)
   - Maiatzak 18: Abornikano, COA (basoa)
   - Maiatzak 31-Ekainak 1: Aizkorri, Liga norte, GOL (basoa)

   Probaren bat egin ezin bada, beste proba batek ordezkatuko du, ahal den neurrian, betiere egutegiak horretarako aukera ematen badu.

6. Sailkapen-probetako puntuazioa: proben puntuazioa honako hau izango da:

   - Basoko proba guztietan, 110etik hasita 10naka puntukin puntuatuko da: 1.a-110, 2.a-100, 3.a-90….
   - Herriko proba guztietan, 100etik hasita 10naka puntukin puntuatuko da: 1.a-100, 2.a-90, 3.a-80….
   - Probaren baten parte hartu eta edozein arrazoirengatik bukatzen ez bada (erretiratzea, txartel errorea...) 10 puntu jasoko dira.

7. Puntuen sailkapen osoa: alderdi hauek hartuko dira kontuan:

   - Izangai bakoitzari, puntuaziorik onena duen 6 probak zenbatuko zaizkio.
   - Gutxienez 5 probatan parte hartu beharko da sailkatu ahal izateko.
   - Puntualki, ordurarteko puntuen sailkapena bidaliko da, gurasoen whatsapp taldera.

8. Sailkapen-probetan izena ematea: oro har, hautagai bakoitzak izena eman beharko du probetan. Probaren aurreko astean mezu oroigarri bat bidaliko dugu whatsapp taldera. Hasiera batean, hautagaiek beren kabuz (senideak, lagunak, klubeko kideak, etab.) joan beharko dute probarako ezarritako lekura. Hautagai batek joan-etorriak egiteko zailtasunak baditu, aldez aurretik jakinarazi behar zaie entrenatzaileei eta konponbide bat aurkitzen saiatuko dira.

9. Probetan izena emateko kategoriak: proba bakoitzean, izena emateko epean, hautagaiei adieraziko zaie zein kategoritan eman beharko duten izena sailkapen osorako puntuak lortu ahal izateko. Oro har, kategoria hauetan inskribatu beharko dira:
    - Proba herrikoien ligak:
        1. JUBENILAK: open gorria.
        2. KADETEAK: open laranja.
        3. INFANTILAK-ALEBINAK: open laranja.
    - Ipar Ligako Probak: (edo normalean Ipar Ligan parte hartzen duten kategoria)
        1. JUBENILAK: F/M-18.
        2. KADETEAK: F/M-16.
        3. INFANTILAK-ALEBINAK: F/M-14.

Hautagairen batek entrenatzaileek ezarritakoa baino goragoko kategoria batean izena eman nahi badu, kategoria horretan lortutako postuari dagokion puntuazioa lortuko du, eta kategoria horretan beste hautagai bat gehiago izango da.

10. Analisi-saioak: sailkapen-proba bakoitzaren aurretik eta batzuetan ondoren, aukerako bideo-deiak antolatuko dira hautagai guztientzat:
    - Aurreko astean, buletina/webgunea errepasatuko da probaren informazioarekin eta informazio horren analisia egingo da: distantziak, desnibelak, lur-mota, sinbologiak, etab.
    - Hurrengo astean, probaren ibilbideak berrikusiko dira, estrategiarik onenak aztertuko dira eta hautagaien ibilbide-hautaketak trukatuko dira. Gomendagarria da hautagaiek ibilbidea GPS bidez grabatzea, akatsak eta asmatutakoak aztertu ahal izateko.

11. Hautatutako kirolariak: 2024ko CESAn Euskadiko selekzioa osatuko duten hautagaien kopuru osoa 24 lehiakidekoa izango da gehienez, eta honela banatuta egongo dira:
    - JUBENILAK: 4 gizonezko eta 4 emakumezko kirolari, bigarren ataleko adinen arabera.
    - KADETEAK: 4 gizonezko eta 4 emakumezko kirolari, bigarren ataleko adinen arabera.
    - INFANTILAK: 4 gizonezko eta 4 emakumezko kirolari, bigarren ataleko adinen arabera. **Kategoria honetan plaza libreak geldituko balira, ALEBIN mailako kirolariekin osatuko dira**.

Sailkapen-probetan puntuaziorik haundiena lortzen duten lehen 3 gizonezko kirolariak eta lehen 3 emakumezko kirolariak Euskadiko Selekzioaren parte izango dira CESA 2024rako. Kategoria eta sexu bakoitzeko laugarren postua zuzendaritza teknikoak erabakiko du.

12. Ahal izanez gero, asteburu bateko kontzentrazioa antolatuko da entrenamendu-probak egiteko, puntuagarriak izango direnak.

Hautagai guztiek formulario honen bidez eman behar dute izena:

Hautagaien GALDETEGIA

EPEMUGA: 2025/02/01

Ibon Aiestaran, Emma Casado, Zigor García, Ulises Gutiérrez, Marina Lertxundi, Josu Ullibarri
Zuzendaritza teknikoa/Dirección técnica

Euskadiko eskolarteko orientazio taldeko hautatzaileak

euskadi.o.gazteak@gmail.com